


Euroguneko sentimendu ekonomikoak okerrera egin du martxoan

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

MARTXOKO DATUA


94,5




Europako herrialdeen sentipen ekonomikoak nabarmen egin zuen okerrera martxoan, koronabirusa hedatu ahala, eta haren hedapena saihesteko neurriak hartzen ziren heinean. Hala, Euroguneari dagokion adierazlea ia bederatzi puntu jaitsi zen, 94,5ean kokatu arte, bere batez besteko historikoaren azpitik. Gainera, kontuan hartu behar da erantzun gehienak otsailaren amaieran eta martxoaren lehen egunetan jaso zirela; beraz, litekeena da apirileko datua martxokoa baino nabarmen okerragoa izatea.

Narriadura orokorra da, baina industriak eta zerbitzuek bizi duten une txarra nabarmentzekoa da, aurreko balioarekin alderatuta hainbat puntu jaitsi baitira. Era berean, kontsumitzailearen konfiantzak eta txikizkako merkataritzak aurrekoak baino askoz balio txikiagoak jaso dituzte. Eraikuntzak bakarrik lortzen du batez bestekoa baino balio nabarmen handiago bat jasotzea, eta otsaileko datuaren aldean sektorearen moteltzea ez da bi puntuetatik pasatzen.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA



Sentimendu ekonomikoaren beherakada orokorra da, baina aldaketa oso esanguratsuak nabari dira herrialde batzuen eta besteen artean, agian sentimenduari baino gehiago informazioa bildu den uneari erantzuten diotenak. Esate baterako, Alemanian indizeak behera egin du otsailaren 101,8tik martxoaren 92,0ra. Hala ere, Frantzia, otsailaren 105,5aren ondoren 100,6ko balioa izan zuen, eta horrek ez du oraindik ezkortasun egoerarik adierazten. Lehen herrialdean, zerbitzuek galdu egin dute aurreko hilabeteetan erakusten zuten irudi sendoa, eta oso modu esanguratsuan erori dira; aldi berean,


industriak, jada posizio zailean baitzegoen, beherakada areagotu du. Frantziaren kasuan, berriz, industrian ia ez da okertzerik hauteman, eta zerbitzuek ez dute galtzen herrialde germaniarrean bezainbeste.

Italiaren kasua Aalemaniakoa baino are nabarmenagoa da, 101,3tik 83,7ra jaitsi baita. Herrialde horretan, osagai guztiek okerrera egin dute nabarmen, aurreko hilabeteekin alderatuta. Erresuma Batuan, azkenik, urtearen hasieratik, behin Europar Batasuna uzteko modua adostuta, nabari zen susperraldiari galga jarri diote.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ERRESUMA BATUA



Azkenik, Espainian okerragotzea ez da, oraingoz, oso esanguratsua izan, nahiz eta dagoeneko 99,3an dagoen, hau da, bere batez besteko balio historikoaren azpitik. Osagai guztiek okerrera egiten dute, baina azpimarratzekoa da zerbitzuen indizearen beherakada, eremu negatiboan dagoen bakarra baita. Aitzitik, ez industriak ez txikizkako merkataritzak ez dute oraindik hilaren bigarren erdiko konfinamenduaren eragina jaso, eta eraikuntzak irudi positiboa eskaintzen du.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europar Batzordea.